



# Kulturaren balio publikoa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Kulturaren balio publikoa \_

## Hitzaurrea \_3

### 1 Esparru teorikoa \_5

- 1.1. Berezko balioa \_7
- 1.2. Balio-instrumentala \_8
- 1.3. Erakunde-balioa \_9

### 2 Ebaluatzeko eredu dimentsio anitzekoa \_10

- 2.1. Eredu zabal eta barneratzailea \_10
- 2.2. Kultura-balio publikoa sortzeko faktoreak \_11
- 2.3. Balio iraunkorrekiko lotura \_12

### 3 Ereduaren egitura: ardatzak eta dimentsioak \_14

- 3.1. 1. ardatza. Kultura esperientzien tresna gisa \_14
- 3.2. 2. ardatza. Kulturaren kanpokotasunak \_17
- 3.3. 3. ardatza. Erakunde-balio publikoa \_18

### 4 Adierazle proposamenerantz \_20

- 4.1. Kultura-esperientziak ebaluatzea \_22
- 4.2. Kanpokotasunak ebaluatzea \_23
- 4.3. Erakunde-balio publikoa ebaluatzea \_23

### 5 Azken sintesia \_25

### Bibliografia erreferentziak \_26

# Hitzaurrea

Azken hamarkadan, kulturak bi krisialdiren ondorioak jasan ditu: krisialdi ekonomikoarenak eta gizartearen legitimazioaren krisialdiarenak. Testuinguru sozioekonomikoak ikuskera publikotik sendo ziruditen printzipioen oinarriak astindu ditu: norbanakoaren eta taldearen garapena bultzatzen duela-eta kulturaren inbertitzeko beharra. Hortaz, beharrezkoa da kulturaren balio publikoa hausnartzea.

Alde batetik, argudioak behar dira onurak erakusteko; erabilgarritasuna justifikatzeko; kulturaren alde egiten jarrai dezaten, erantzukizun politikoak dituztenak konbentzitzeko. Erretorika publikoaren eta erakunde praktikaren arteko tentsioan jartzen dute fokua. Tresna planteamendua da; neurri batean, defentsiboa. Beste alde batetik, badirudi kulturak legitimazioa galdu duela jendartean, jendartearen ikuspegitik garrantzia galdu duela; ondorioz, sektorean desilusioa hedatu da eta oinarritzko kontuak berriz dira eztabaidagai. Kulturaren inguruan antzematen dugun interesik eza, benetan, kulturaren desinstituzionalizazioa izan daiteke, Marina Garcésen dioen moduan. Kulturaren zentzuaz, izateko zioaz, burujabetzeko gaitasunaz eta berez duen garrantziaz hausnartzen dugu. Berezko balioaz.

Lehen hurbilketa estratu publikoari eta kultura-kudeaketan dabiltzanei arrazoiak ematera bideratzen da; bigarrenaren helburua herritarrenganako lotura bizipen pertsonalaren bidez bilatzea da. Hurbilketa biok batera gertatzen dira, baina azken urteotan alderdi instrumentalak presentzia eta eragin handiagoa izan du. Ekonomian eta jendartean duen eraginari buruzko azterlanak eta ikerketak ugartu egin dira. Kulturak komunikabideetan duen oihartzuna era horretako efektuei egon ohi da lotuta.

Nahiz eta kulturaren berezko balioaren inguruko ikerkuntzak arreta txikiagoa erakarri duen, kulturari buruz ondasun komun gisa eztabaidatzeak kulturaren inguruan dugun rola garrantzia azpimarratu du. Garcésen esanetan, gure rola ez da xahua; arrastoa eta oinartza uzten du; kulturaren inguruan egiten dugunak, adierazten dugunak, kontsumitzen dugunak eta partekatzen dugunak garen modukoak egiten gaitu eta mundu batzuk edo beste batzuk artikulatzera bideratzen gaitu.

Ikuspuntu horri hurbilketa fenomenologikotik kulturak sortzen duen norbanakoen esperientzia aztertzeke interesa gehitzen zaio. Ikerketa interesgarrien lerro baten arabera, zenbait gai azaltzen dira. Alegia: bikaintasun edo kalitatearen inguruko iritziaren neurketa; balio estetikoaren (forma) eta kognitiboaren (edukia) arteko lotura; gozamenaren balioa.

Beharbada, kulturaren balioa aztertzeke interes eta gaurkotatasunaren adibiderik agerikoena *Cultural Value* Project da; hiru urtez (2013-2015) garatu da, eta azken txostena 2016an argitaratu zen. Erresuma Batuko *Arts and Humanities Research Council-ek* bultzatuta, arteen eta kulturaren balioa eta horiek pertsonengan eta jendartean duten ondorioa ulertzeke anbiziorik handienetako ikerketa da. Helburuak honako hauek dira: kulturaren garrantziaz hausnartzea eta kulturak sortzen dituen ondorioak nolatan kaptatzen ditugun aztertzea. Ikerketa zorrotz eta sakona da hain zaputza den kontzeptua, kulturaren balioa, ulertzeke.



Ikerketa horren helburua bat dator aurkezten ari garen azterlanarekin. Ikerketak berezko eremuaren eta tresna eremuaren arteko bereizketa apurtzearen alde egiten du, hots, honako eztabaida gainditu nahi du: kultura “berez” baloratu behar da edo sortzen dituen onura ekonomiko eta materialen arabera besterik ez da ulertu behar? Proiektuaren ardatzaren arabera, pertsonen esperientzia kultura-balioaren muina da; izan ere, esperientzia horretatik abiatuta soilik kanporantzko ekintza-eremua zabal daiteke eta kulturaren onurak aztertu. Metodologia ikuspuntutik, pertsona abiaburu jartzeak erronkak dakartza kulturaren balioa modu adierazgarrian ebaluatzeke garaian.

Baina Erresuma Batuko proiektu hori ez da fokua kulturaren balioan jarri duen bakarra, inpaktua neurtzeaz gain. Beste adibide bat CCCBn 2013an kulturaren zergatiari buruzko jardunaldiak dira, non filosofiako, sormeneko, unibertsitateko edo komunikabideetako jende ospetsuak hartu zuten parte. Jendarte beharizanetarako finantzaketa lortzeko lehiaketaren testuinguru orokor batean, funtsezko gaiak plazaratu ziren berriz. Honako hauexek dira gaiok: giza esperientziarentzako ekarpena eta kultura herri-ondasun legez.

Balioaren eta horrek kulturarekin duen loturaren argudioak gogora ekartzeko adibide bi dira. Hau da, funtsezko galderak berriz egitea: Zergatik da beharrezkoa kultura? Zer dakarkigu? Zer balio dauka? Zertarako da? Hauxe da gure abiapuntua: kultura balio edo ondasun publikoa da. Errealitatea ulertzeko, interpretatzeko eta eraldatzeko gaitasuna ematen digu, eta herritarrak askeago eta kritikoago izatera garamatza. Kulturak axola digu, kulturak eragina du guregan, kulturak galderak egiten dizkigu. Garcések dioen moduan, kultura lehen mailako ondasuna eta behar-beharrezkoa da. Garenaren eta izan beharko genukeenaren arteko mugak zabaltzen ditu. Erresistentzia da eta burujabetza da.

*Kulturaren Euskal Behatokia*-ren azterlanaren xedea kulturaren balio publikoa hausnarketaren erdigunean jartzea da. Funtsezko arazoari aurre egitea da kontua, jakintzat ezer emateke, eta arrazoiak bilatu behar dira kultura-politika publikoaren alde.


# 1 Esparru teorikoa

Kulturaren balio publikoa gehien aztertu duten kultura-politiketan adituetakoa bat John Holden izan da. *Heritage Lottery Fund*-entzat Demosen argitaratutako lanak erreferentzia teorikoa dira oraindik ere kultura-balioa (Cultural Value) aztertzeko. Kulturaren inpaktua neurtzen duten datu kuantitatiboak batzeari garrantzia kentzeke, kultura bera baloratzeko tresnak jartzearen alde egiten du, politika publikoen beste eremu batzuekiko beharrezkoa den loturatik edo ekonomia eta jendarte errealitatek aldenduta. Hortaz, kulturari lotutako elementu eraginkorrak, ukiezinak eta esperientziakoak identifikatu eta aztertzearren alde egiten du eta kultura tresna hustzat erabiltzearen aurka egiten du. Honako hauexek ditu kontuan azterketak:

- Ekonomia-datuez eta alderdi zenbakarriez gain, kultura-esperientziaren, -praktikaren eta -nortasunaren elementu afektiboak aintzatesten ditu. Hortaz, kulturaren balioaren zati bat esperientzia subjektiboan jartzen du.
- Eredu bat miatzen du balio publikoa zentzu zabalean ebaluatzeko (edo balioaren galera ebaluatzeko).
- Ondasun publiko aldaezinak aukeratzen ditu; adibidez, zuzentasuna eta justizia, eremu publikoan konfiantza sustatzea, osasuna eta oparotasuna epe luzeko helburu gisa.
- Kultura indartsua sustatzen du, bere berezko balioaz seguru dagoena, bigarren mailako onurak sortzeko bideratutako kultura “ahularen” orde.
- Desafio egiten die arduradun publikoei, kultura-erakundeei eta artistei, politikariaren eta finantzatzaren dutenen artean eta profesionalen eta publikoen artean beste harreman eremu bat sor dezaten.
- Kultura politika publikoaren gainerako elementuekin integratzen du. Ondorioz, bere berezko eremuan dagoen osagarria izan beharrean, kultura jendarte zibila osatu eta oinarritzen duen alderdi gisa ikusten du.

Ikuspegi horretatik kontzeptu eredu triangeluarra diseinatzen du, zeinetan hiru balio mota elkarrizketan jartzen baitira: berezko balioa, tresna-balioa eta erakunde-balioa. Interes eta igurikapan desberdinak bateratzeko beharretik sortzen da, balioaren hiru erpinen arteko harreman dinamikotik.

1. irudia. Holdenen Balio Triangelua



**Berezko balioak** kulturaren esperientzia subjektiboen multzora igortzen gaitu ikuspegi intelektual, emozional eta espiritualetik. Irizpide pertsonalean oinarritzen da; beraz, gaitza da termino orokorretan artikulatzea. Kultura-politika populazioari interesatzen bazaio, kultura sarritan gai pertsonal eta pribatua da. Berezko balioa gugan ondorioak izateko gaitasunean eta potentzian datza. Batetik, norbanakoek (zeinek mota guztietako jarrera, sinesmen eta lehendik bazeuden jakintza maila guztiak baitituzte) eta, bestetik, objektu edo esperientzia batek duten topaketan edo elkarrekintzan kokatzen da. Thorsby-k proposatutako ereduaren arabera, balio historiko, sozial, sinboliko, estetiko eta espiritualak kultura-balioa eratzen duten elementuak dira; kontzeptu lauso eta konplexu bat kategorietan sailkatzeko modu bat da.

**Balio instrumentala** kulturatik eratorritako ondorioekin edo ondorio lagungarriekin dago lotuta. Ikuspegi horretatik, ekonomia, jendarte edo ingurumen helburuak lortzeko baliabidea da. Sarritan, baina ez beti, datuetan adierazten da. Balio mota hori kulturari inbertitzeko garrantzia dokumentatzen duten ekonomia inpaktuko azterlanetan edo inbertsioa jendartera itzultzeari buruzkoetan islatu ohi da. Garrantzitsua da kontuan hartzea, tresna ikuspuntu batetik, kultura potentzial bat dela erraz igarri daitekeen kausa-efektu harremana bainoago.

**Erakunde-balioa** balioa sortzeko antolakundeek ezartzen dituzten lan prozesuekin, metodoekin eta egiturekin dago lotuta. Sortu (edo suntsitu) egiten da herritarrekin harremanetan jartzen diren moduaren arabera; lan praktikekin eta jarrerekin dago lotuta, eta zerbitzu publikoaren ethosean dago sustraituta. Erakunde batek ondasun publikoak lor ditzake; esaterako, herritarren arteko konfiantza eta errespetua sortzea, esparru publikoa hobetzea eta soziabilitaterako eta esperientzia partekatuak gozatzeko testuinguru bat eskaintzea. Erakunde-balioaren arabera, kultura-antolakundearen rola ez da politikarien eta publikoaren arteko bitartekaritza-lana soilik, baizik eta eragile aktiboak dira balio partekatuak sortu edo suntsitzeko garaian.

Halaber, Holdenen ereduaren arabera, kultura-sisteman parte hartzen duten hiru alderdien arteko harremanak aztertzen dira; hauexek dira alderdiok: publikoa, politikariak eta politika publikoaren arduradunak, eta profesionalak. Balio triangeluaren sistemari jarraikiz, publikoari berezko balioa interesatzen zaio gehiago, eta, neurri batean, erakunde-balioa, eta tresna-balioa ez dio lar axola. Profesionalek berezko balioek ematen duten gogobetetzea eta benetakotasuna behar dute, baina baita bidezko ordainsaria eta aitortza profesionala ere. Esangura horretan, helburu multzo handia baloratzen dute, eta helburuok profesionalon, politikarien eta publikoaren arteko harreman esparru berri batetik baino ez dira lortzen. Arduradun politikoei, berriz, onura ekonomiko eta sozialen arabera baloratzen dute kultura. Nahiz eta neurri batean aintzatesten den tresna-balioak ez liratekeela izan behar xede bakarra, diskurtso horrek badirau.

Azken finean, ikuspegi horren arabera, kultura-balioa estrategia bat da emaitza bat baino gehiago. Behin eredu aurkeztuta, balioaren erpin horietako bakoitza garatuko dugu.

## 1.1 Berezko balioa

Zientzia eta filosofia garaikideek esperientzia hausnarketaren erdigunean jartzen dute. Kultura pasiboa eta Greziako eta Erdi Aroko herentzian praxiaren aldean teoriak duen lehentasuna alboratuta, modernitate aurrera, Kantek imajinarioaren eta intelektuaren arteko sintesia proposatu zuen eta imajinario sortzaileaz hitz egin zuen sentibilitatean eta ulermenean dagoen giza arimaren ahalmen gisa.

Sormenaren ikuskeratik, Berpizkudean agertu zen artista profesionalaren kontzientzia, baina oraindik arte arau-emaile eta heteronomoaren kontzeptuari lotuta. Erromantizismoan, artista hasten da askatzen kanon objektibotik, harik eta XX. mendeko abangoardietara iritsi arte, non arteak barruko beharizanari baino ez dion erantzuten eta ni sortzailea lehenesten den. Horrela, subjektibismoa da arte garaikidearen ezaugarria.

Lanaren harreraren ikuspuntutik, Umberto Ecoren arabera, artelan guztiak “lan irekiak” dira; egitura bat, zeinetan maila materiala, zentzu maila eta harrera maila dauden. Lana gozatzean lan hori osatu eta berriz egin dezan ikuslea behar da. Horrela, hartzaileak berriz sortzen du lana. Esangura horretan, garrantzitsua da azpimarratzea bizipen estetikoaren ostean ezagutza eta esperientzia ondare bat dagoela, beren-beregi kontzientea ez bada ere. Ez da erraza muga bat jartzea esperientzia estetiko zehatzaren eta testuinguru zehatz batean gertatzen den lanaren bizipen historikoaren eta kulturalaren artean. Hortaz, gure ikuskera sentibera hutsa denetik haratago doa, eta lana ez da denotatiboa besterik gabe (zetzumen faktorea), baizik eta, horretaz gainera, konnotatiboa ere bada (asoziazio faktorea). Horrela azpimarratzen da hartzailearen hezkuntza rola garrantzitsua.

Kultura-esperientzia desinteresatua da, hau da, ez da balioan oinarritua. Eta premisa horretatik hitz egiten dugu kulturaren berezko balioaz. Garrantzitsua da arreta eskaintzea ikusleari, berorren jarrerari. Pertsonok kultura-jarduerak bizitzeko dugun moduari, jarduerari bainoago. Esangura horretan, kultura-

esperientziaren inguruko ikerketa, batez ere, fenomenologiatik egiten da. Horixe da *Cultural Value* proiektuak kontzeptu horren inguruan duen ikuspegia. Zehazten badute ere ez dela kultura-balioa aztertze bide bakarra eta ez dela nahikoa kulturaren efektuaren dimentsio guztiei antzemateko, garrantzia ematen diote fenomenologikoari lehentasuna emateari, beste metodologia batzuei dagokienez dagoen orekarik eza zuzentzeko, eta horrek eremu horretan ezagutza galtzea ekarri du.

Azkenik, kultura-proiektua ebaluatzean, nahitaezkoa da azpimarratzea kontuan hartu behar dela kultura-jarduerak eta -praktikak pertsonengan sortzen duen esperientzia. Esperientzia gogobetegarria (aldagai guztietan: intelektuala, soziala, parte-hartzailea, emoziozkoa edo sortzailea) eta berorrek sortzen duen ezagutza oinarritzkoak dira proiektua pertsonentzat eta jendartearentzat onuragarria den ala ez erabakitzeke.

Giza esperientziaren ikuskera sinplifikatzailearen eta indibidualera eta subjektibora murriztuaren aldean, ezagutzako funts komun legez ulertu behar da, zeinak lotzen baikaitu eta esperientzia zehatz batzuen multzoa baita, eta esperientzian bidez zentzua, balioa eta gaitasun transformatzailea landu daiteke.

## 1.2 Balio-instrumentala

Atal honetan, sarritan kulturaren aldeko argudioak bereganatzeko joera duen gai sorta bat jorratuko dugu. Kulturaren zertarakoa azaltzen da. Kanpokotasun edo tresna gaitasun izenekoak dira. Esparru horretan, kultura-politikek jendartea garatzeko duten balioa azpimarratu dute egin diren azterketek, eta nabarmendu dute gaitasuna dutela beste sektore-politika publiko batzuen helburuak garatzen laguntzeko. Hurbilketa horiek kultura-ekintza eta -politikaren tresna-begirada dakarte, eta, gehienetan, euren existentzia legitimatzeko, lehentasun handiagoa duten helburuak lortzeko kulturak duen rola garrantzia azpimarratzen dute. Horrela, kultura kulturaz kanpoko helburu bat lortzeko erabiltzen da: turismoa eta inbertsioak erakartzeko, hiri eremu bat bere onera ekartzeko eta abar. Hortaz, kultura-ekintzaren beraren garrantzia txikia dela onartzen dute inplizituki.

Onura mota hori kultura-politiken berezko zeharkakotasunean oinarritzen da, beste politika publiko batzuen helburuak (hezkuntzako, osasuneko, ingurumeneko politikenak) arrakastaz lortzen laguntzeko gaitasuna baitute.

Fokua tresna-onuretan eta -inpaktuetan jartzeak arriskuak dakartza. Alde batetik, albo-emaitzak eta -onurak bilatzeak berezko kultura-helburuei balioa kentzen die. Hari beretik, baliabideak kanpokotasunen bidez bilatzen badira, arriskurik ez dakarten proiektuak bultzatzen dira eta jarduera esperimentalagoak eta berritzaileagoak alboratzen dira. Horrezaz gain, erakunde finantzatzaileek esku-hartze handiagoa eduki dezakete proiektuetan.

Beste alde batetik, emaitzen erretorikaren erruz zailtasun bat gehitu behar da: sorkuntza-egitura eta kultura-erakundeak ez dira islatzen emaitzen kontzeptuan. Kultura-esperientzia pertsona baten eta jarduera edo produktu baten elkarreraginaren ondorioa da, eta elkarreragina aurreikusiezina da eta irekia behar du izan.

Azkenik, neurketak berak burokratizazioa ekartzeko joera du. Erabilgarriak izateko, datuak sendoak izan behar dira denbora zehar. Zorrotzak ohi diren informazio-sistemak behar dira; kultura, ordea, jaria korra da. Halaber, inpaktu edo onuraren inguruko azterlan horietako asko baliabideak eskatzeko asmoarekin egiten dira. Holdenen arabera, sistema-ikuspegitik, agindu baten bidez lortutako informazioaren objektibotasuna zalantzan jarri behar da.

Hortaz, kulturarako, arazoak daude tresna-argudioarekin, bai ebidentziak ahulak direlako bai fokua emaitzetan eta inpaktuetan jartzeak sistema-efektu zehatz batzuk dakartzalako. Gero eta froga gehiagok erakusten dute bi gai ahaztu ditugula; alegia, datuak ez dira ezagutza, eta datu objektiborik onenek ere ez dute osorik azaltzen kulturaren balioa. Balio hori ezin da behar bezala adierazi estatistika-termino hutsetan. Faktore batzuk behar dira balio hori azaltzeko, eta faktore horietako asko ez dira ekonomia-adierazleak. Inpaktua neurtzeko egun erabiltzen diren moduak beharrezkoak dira eta hobetu egin behar dira errealitatea ez sinplifikatzeko, eta errealitate hori berme jakin batzuekin ezagutzeko oinarria eman dezaten. Hala ere, inoiz ezin dira izan nahikoak.



## 1.3 Erakunde-balioa

“Balio publikoa” kontzeptua Moore-ek asmatu zuen, 1995ean. Oinarrian esan zuen administrazio publikoak hobera egin lezakeela kudeatzaileen helburua balio publikoa erabakiak modu malguagoan eta autonomoagoan hartzearen bidez handitzea izango balitz, hau da, zerbitzu publikoa gidari.

“Balio publikoa” herritarrek erakunde publikoen prestazioen bidez jasotzen duten onura da. Labur-labur, organismo publikoek ematen dutenaren eta jasotzen dutenaren arteko aldea. Balio publikoa sortzeko, ezinbestekoa da aintzatestea jasotako prestazioa beharizan bati emandako erantzun egokia dela, egungo edo geroko bizi-aukera berrietarako ate irekia, edo erkidegoa, herritartasuna, ekitatea edo kapital soziala sortzeko funtsezko ekarpena. Balio publikoa subjektiboa da, pertsona hartzailearen pertzepzioari eta aintzatespenari lotua.

Moorek hiru urrats identifikatzen du balioa sortzeko prozesuan. Lehenengoa kudeaketa publikoaren triangulu estrategikoa izenekoa ezartzea da:

Antolakuntzaren xede eta helburu orokorrak balio publikoen terminoetan adierazi behar dira; adibidez, ekitatearen sustapena eta konfiantza.

Jendarteak antolakuntzarekin duen konpromisoa oinarritzen duten baliabideak, aliantzak, laguntza eta legitimitatea artikulatu behar dira. Hau da, konbentzitu behar da proiektua gauzatu behar dela, parte hartzen duten eragileen lankidetzaren esparrua definitu behar da eta negoziatu behar da proiektua gauzatzeko behar diren baliabideak lortzeko.

Azaldu behar da antolakuntza egituratu behar dela eta funtzionatu behar duela helburuak lortzeko; antolaketa gaitasuna, antolakuntzaren kultura, lan prozedurak eta lidergoa ezinbestekoak dira balioa sortzeko.

Harrisonen esanetan, politika baten balio publikoa sei dimentsiotan dituen emaitzen arabera ezagut daiteke: finantza-dimentsioa (diru-sarrerak, kostuak, arriskuak, aktiboak, pasiboak edo erkidegoan aberastasunarekin lotutako beste edozein alderdi); dimentsio politikoa (erkidegoan prestazioak sortu eta esleitzeko eragina izateko gaitasuna); jendarte-dimentsioa (bizi-kalitatea, jendartearen mugikortasuna, erkidegoaren estatusa edo identitatea); dimentsio estrategikoa (erkidegoaren eragileen artean helburuak, baliabideak eta ekintzak adosteko gaitasuna); dimentsio etiko-ideologikoa (tartean diren eragileen sinesmenak, balioak edo konpromiso etikoak, erkidegoaren jendarte-lehentasunei dagokienez); legitimotasuna eta sineskortasuna (erkidegoko eragileen edo taldeen prestigioa eta konfiantza).

Balioa aintzatesten dugu bai zerbaiten truke zerbait emateko prest gaudenean, baina zerbaiti uko egiteko prest gaudenean batez ere. Esaterako, zuzeneko finantza-ekarpenak egiteko prest gaudenean (sarrerak ordaintzen ditugunean), edo prest gaudenean gure zergak sektorera bidera ditzaten. Kulturaren kasuan, publikoaren denbora- eta energia-konpromisoa oso esanguratsua da. Kultura jarduerak bisitatze, erabiltze eta gozatzeko emandako orduak erakusten dute publikoak baloratzen dituela. Amateur praktikak eta asoziazionismoak berebiziko garrantzia dute kulturaren esparruan, eta are eta konpromiso handiagoa erakusten dute. Asoziazionismoaren balio publikoa ez dago lotuta emaitza edo onura batekin, baizik eta jendarte-harremanen eta kulturarekiko atxikimendu afektiboen garapeneren bidez sortzen da.

# 2 Ebaluatzeko eredu dimentsio anitzekoa

Kapitulu honen xedea kulturaren balio publikoa ebaluatzeko eredu azaltzeko posizioa ezartzea da. Behin esparru teorikoa aurkeztuta, berori eraikitzeko oinarriak jarri behar dira: perspektibaren zabaltasuna, kulturaren balio publikoa sortzeko eragina duten faktoreak eta, azkenik, balio iraunkorrekiko lotura.

## 2.1 Eredu zabal eta barneratzailea

Kultura edo, hobeto esanda, zer kulturala (Barbieri, 2014), konfluentzia-esparrua da: bizipena, emozioa eta ikasketa da; esperimentatzea, arriskatzea eta negoziatzea da; sektorea, kudeaketa eta politika da; lotura eta garapen soziala da. Erkatzea, parte hartzea, partekatzea eta imajinatzea da.

Helburuak, interesak eta igurikimenak bateratzeko beharra eredu inklusibo eta dinamikoaren proposamenaren ondorioa da, zeinetan balioaren hiru ardatzak konektatzen eta lotzen diren. Kulturaren kontzeptu indartsu batean oinarritutako ikuspegi holistikoa behar da, zeinak zer kultural horretan elkarrekin diren dimentsio guztiak kontuan hartzen dituen.


Ondorioz, ikuspegi horren arabera, kontuan hartu ohi diren alderdiak zabaldu eta hedatu behar dira. Eredu horrek, neurtzeaz gain, ebaluatu nahi du, eta metodologia kualitatiboak eta elementu subjektiboak gehitu behar ditu. Azpimarratu behar da antropologiatik, psikologiatik edo marketinetik datozen kontzeptuak eta metodologiak erantsi direla, kulturaren berezko balioa ebaluatzen saiatzeko; ingurumen esparrutikoak ere bai –adibidez, iraunkortasuna eta dibertsitatea–; ukiezinen balorazioa eta balio publikoa ere gehitu dira, kasu honetan zer kulturalari aplikatuta.

Esangura horretan, eredu demokratikoa da, kulturaren legitimotasuna indartzen duten argudioak batzen dituen.

## 2.2 Kultura-balio publikoa sortzeko faktoreak

Kultura-balio publikoa ebaluatzeko eredu proposatzeko, kultura-ekintzaren eraginpeko pertsonen beharrezan eta ikuskerak hartu behar dira kontuan. Hauexek dira pertsonok: publikoa, kulturaren profesionalak eta kultura politikak gidatzen dituzten arduradunak.

**2. irudia.** Balioa sortzeko beharrezan eskema



**Publikoak** hiru faktoreren bidez baloratzen du kultura-esperientzia:

— Lan edo proposamen artistikoa. Kultur “artefaktuak” transzenditzeko eta haren identitatea eta munduan duen posizioa osatzen duten emozioak sortzeko duen gaitasuna. Suspergarriak, atsegingarriak, onerakoak, aztoragarriak, espiritualak, desafiatazileak, aspergarriak eta abar izan daitezke.

— Proposamenari lotutako prozesuak. Sormenekoak edo zerbitzua ematekoak izan daitezke, eta gozatzen ari zarenaren inguruko informazioarekin, eskaintzen den arretaren kalitatearekin, erosotasunarekin, zintzotasunarekin, gardentasunarekin, koherentziarekin eta abarrekin daukate zerikusirik.

— Kulturak ematen duen inplikazio gaitasuna. Talde bateko kide izateko sentimendua eta leku fisikoarekiko edo interes-erkidego batekiko lotura indartzen du. Esangura horretan, balioa mailakatzeko ereduak daude, kultura jardueretan parte hartzeko mailaren arabera, ikusle hutsa izatek amateur praktikara.

Horrez gain, **profesionalki kulturari diharduten pertsonak** bi kontu bereziki baloratzen dute:

— Kulturaren balioek lanari ematen dioten gogobetetasuna eta zentzua, eta esparru hori oso bokaziozkoa da, ez sormen-alderdiari dagokionez soilik. Halaber, tresna-balioek eragina dute lanaren erabilgarritasunaren pertzepzioan.

— Lan baldintza duin eta bidezkoak, erakunde erpinari atxikitako balioekin lotuta.

Dena den, ez dira falta hausnarketa eta azterlan interesgarriak, kultura-sistemaren laneko gogoberotasun eta sormen-pasioaren eta prekaritatearen arteko loturari buruz (Zafra, 2017); edo genero, etnia edo klaseari dagokionez kultura-lanean falta den ekitateari buruz (Gubbins, 2016).

Azkenik, estamentu politikoek kulturaren tresna-balioei lotutako onurak batez ere baloratzen dituzte, ez ekonomikoak besterik gabe, jendarte mailakoak ere bai. Errazago neurtzen dira, euren erabilgarritasuna ikusgarriagoa da eta euren lotutako mezuak sendoagoak dira jendarteak duen iritziarentzat.

## 2.3 Balio iraunkorrekiko lotura

Kultura-politikak lotuta daude balio eta printzipio zehatz batzuekin. Unescotik hasi eta tokiko erakundeetarako kultura-erakundeen eta -organismoen estrategien eta gomendioen atzean, zenbait balio daude; alegia, aukera-berdintasuna, arte-askatasuna, kultura-iraunkortasuna, dibertsitatea eta bizitasuna, ekitatea, eta politika publikoak blai blai egin dituzten bestelakoak –esaterako, partaidetza eta gardentasuna–.

Kultura-politiken eboluzioak islatzen du azken hamarkadotan balio nagusiak aldatu direla. Eboluzioak ez du esan nahi balio batzuek beste batzuk ordeztu dituztenik, errealtatean politika batzuk eta besteak elkarrekin bizi baitira, baina bai adierazten du balio berriak garrantzia hartzen ari direla diskurtso eta eztabaidetan.

Lehen etapa batean, besteak beste, identitatean eta irisgarritasunean oinarritutako kultura babesteko eta demokratizatzeko politikak ziren nagusi. Kulturaren zentraltasuna aldarrikatzeko garaia zen, ondare komuna berreskuratzeko, kultura hori herritarrengana heltzekoa.

Bigarren etapa batean, globalizazioak eta mende aldaketan gai digitala indartsu sartzeak sortutako jendarte-, ekonomia- eta politika-aldaketek zenbait balio lehenetsi zuten; esaterako, dibertsitatea, bizitasuna eta adierazkortasuna; berebat, gobernantzan oinarritutako eraikuntza kolektiboko modu berriak bilatzeko beharra ekarri zuten.

### 3. irudia. Kultura-politikan nagusi ziren balioen eboluzioa

Etapak	Kultura-politika nagusiak	Atxikitako balioak
Etapas hasiberria	Kultura babestu eta demokratizatea	Identitatea eta irisgarritasuna
Mende-aldaketa	Kultura-demokrazia	Dibertsitatea, bizitasuna, adierazkortasuna eta gobernantza
Ekonomia-krisi orokorra	Kanpokotasunak	Onura, itzulketa, inpaktua Eraginkortasun, efizientzia, gardentasuna, kontuak ematea
Azken urteak	Berrikuntza eta KSI Jendarte- eta ingurumen-erantzukizuna Balio publikoa eta herri-ondasuna	Sormena, berritasuna, aldaketa Iraunkortasuna eta ekitatea Ardura partekatua, lankidetzaren, interdependentzia

Harrezkero, ekonomia-krisiak inpaktu handia izan zuen zer kulturean, eta, kultura-politikak zalantzan jartzeaz gain, politika horien beharra bera ere jarri zuen zalantzan. Horren ondorioz, zenbait balio baliagarri dira nagusi; alegia, onura, itzulketa, inpaktua, zeinak ekonomiari eta gai sozialari oso loturik dauden, eta eraginkortasuna, efizientzia, gardentasuna eta kontuak ematea, zeinak lehentasunezko balioak diren bermeak dituen kudeaketa baterako.

Azken urteotan balio berriak ari dira gailentzen kultura-esparruan. Esan beharra dago ez direla kultura esparrukoak soilik, politika guztiei eta jendarteari berari erasaten dieten balioak dira, baina kultura-eztabaidetako erdiguneetan daude. Alde batetik, berrikuntza eta sormena azpimarratu behar dira, sormen-ekintzari, berritasunari eta aldaketari atxikitako balio bat azaleratuz. Beste alde batetik, iraunkortasun eta ekitate balioei esker, kulturatik ere erantzukizunez ihardetsi behar zaie gero eta desberdinagoa den eta baliabide mugatuak dituen jendarte baten erronkei. Eta, azkenik, balio publikoari eta herri-ondasunari –edo, hobeto esanda, guztion onari– atxikitako balioak gailentzen dira, kultura-baliabideak kudeatzeko modu kolektiboetan oinarritutako balioak alegia, zeinek fokua jartzen baitute ardura partekatuan, lankidetzan eta interdependentzian, besteak beste.

Kultura-politiken azpiko balioak labur-labur azaldu eta gero, garaia da hausnarketa aztertzen ari garen balioaren hiru erpinetara ekartzeko. Aldez aurretik, argigarria da balio nagusiak ardatz biren alde jartzen direla: tresna-ardatza eta erakunde-ardatza. Batzuek, kulturari berez atxikita egon arren, tresna-ñabardura hartzen dute. Kulturaren Baliagarritasunean zentratutako politiken isla da eta administrazioak hertsiki administrazten du edo, behintzat, esku hartzen du erabilgarritasun horretan. Eta kulturaren berezko balioaren erpina bigarren mailan uztearen ondorioa da.

Hiru ikuskeren eta eurei atxikitako balioen arteko elkarreragina gorabehera, saiatuko gara bakoitzaren balio iraunkor nagusiak esleitzen. Lehenengoz, erpin bakoitzean esku hartzen duten faktoreei buruzko hausnarketa egin daiteke:

#### 4. irudia. Kultura-balioen eta balio iraunkorren arteko harremana

Balio-erpinak	Balio iraunkorrak
Berezko balioa	Plazera, zoriontasuna, edertasuna, kalitatea, bikaintasuna, ezagutza, iritzi kritikoa, identitatea, desberdintasuna, talde bateko kide izatea, garrantzia
Balio-instrumentala	Dibertsitatea, bizitasuna, oparotasuna, onura, iraunkortasuna
Erakunde-balioa	Ekitatea, gardentasuna, konfiantza, prestigioa, duintasuna, zintzotasuna

**Berezko balioa:** kultura-esperientziak sortutako ideiak eta emozioak. Askatasunaren, sormenaren, imajinazioaren eta abarren esparrua da. Balio hedonistekin lotzen da (alegia, plazera eta zoriontasuna); estetikoekin (edertasuna, kalitatea eta bikaintasuna); kongitiboekin (ezagutza, jakinduria edo pentsamendu kritikoa); sinbolikoekin (identitatea eta ezberdintasuna); jendarte balioekin (talde bateko kide izateko zentzua); eta espiritualekin (transzendentzia, adibidez).

**Balio-instrumentala:** besteak beste kanpoko ekonomia-, jendarte-, ingurumen- edo hezkuntza-beharrizan bati erantzuten dion helburua dutenak dira. Adibidez, iraunkortasuna, dibertsitatea, bizitasuna, oparotasuna eta onura dira balio mota horrekin lotura daukaten balioak.

**Erakunde-balioa:** Herritarrekiko erantzukizunaren eta konpromisoaren araberako beren-beregizko borondateari erantzuten dio. Balio horri atxikitako balioak honako hauek dira besteak beste: ekitatea, gardentasuna, konfiantza, prestigioa, duintasuna eta zintzotasuna.

# 3\_ Ereduaren egitura: ardatzak eta dimentsioak

Kapitulu honetan, kulturaren balio publikoa ebaluatzeko eredu garatzen da. Balioaren triangeluan eta azterlan osoan zehar proposatutako hiru ardatzen ikuspegiari jarraitzen zaio, baina honako ardatz hauek bereziki garatzen dira: 1. ardatza, kultura-esperientzien sortzaile gisa, eta 3. ardatza, erakunde-balio publikoa ardatz hartuta.

Izatez, Behatokiak lehenagotik aztertu du 2. ardatza, kulturaren kanpokotasunei buruzkoa.

Espezifikotasunak zehaztu baino lehen, beharrezkoa da argi eta garbi uztea hiru ardatzok elkarri lotuta daudela.

## 3.1\_1. ardatza: Kultura-esperientzien tresna gisa

Muina eta gainerako guztiaren abiarazlea esperientzia da. Txundigarria eta gogoangarria izateaz gain, esperientziak zentzua izan behar du pertsonen bizitzan. Kontua ez da garrantzia azpimarratzea, baizik eta ikertzea zer nolako eragina duen kultura-balioaren sorkuntzan. Hortaz, gakoa esperientziaren esangura aztertzean datza, zeinaren balioa pertsona baten (edo batzuen) eta kultura-objektu (ukigarri edo ukiezin) baten arteko elkarketan oinarritzen baita.

Kultura-esperientzia guztien artean Erresuma Batua *Cultural Value* Project egiten ari den ikerketa azpimarratu behar da, zeinetan unibertsitate batzuk (Warwick, Exeter, Londonborough...) eta, besteak beste, Manchester hiriko arduradunak aritzen baitira lankidetzan. *Arts and Humanities Research Council* eta *Arts Council*-en laguntza dute. Proiektu horren leloa gaiak euren politikan betetzen duen erdigunearen isla da: "Pertsonen bizitza aberasten duten arte- eta kultura-esperientziak aldeztu eta garatzen ditugu eta horietan inbertitzen dugu".<sup>1</sup> Esparru akademikoan, Eleonora Belfiore-ren azterlanak dira azpimarratzekoak.

<sup>1</sup> Izatez, atal honetako informazio asko honako agiritik aterata da: *Understanding the value and impacts of cultural experiences*. Arts Council England.



Hala ere, kultura-esperientzien azterketa hasiberria da, kultura-balioarekin lotutako beste gai batzuekin alderatzen badugu. Besteak beste, ikerketa gutxi egiten dira neurketa zaila da eta. Ikerketak aurretik jakin ezinezkoak, irekiak eta subjektiboak dira; beraz, oso konplexua da eurak parametroetan sartzen ahalegintzea.

Horrez gain, bizipen desberdinak sortzen dituzten kultura-praktika aukera zabal bati aplikatzen zaio esperientzia. Horri gehitu behar zaio ikerketak norbanakoei buruzkoak direla, eta, hala, zaila da erkidego edo jendarte batek kultura-esperientziei ematen dien kultura-balioa zehaztea jendeak emandako emaitzak besterik batzen ez badira.

**Aplikaturako metodologiak.** Ikerketa metodoek honako arlo hauek dituzte iturburu, besteak beste: etnografia (esperientziaren esangura), psikologia (pertsonengan duen eragina) edo marketina (kontsumitzaileak ematen dion balioa). Halaber, kultura-azterlanek (*cultural studies*) partaidetzaren eta kultura-praktiken perspektibatik aztertzen dituzte kultura-esperientziak.

Ikerketa kultura-esperientziei aplikatzeko modu bat ikerketa-unearen arabera esperientziok sortzen duten inpaktuari egokitzea da, eskema hauxe kontuan hartuta:

**5. irudia.** Kultura-esperientzien inpaktu motak

Pilaturiko inpaktuak	Esperientzia-inpaktuak	Inpaktu hedatu eta metagarriak
Esperientzian	Ordu batzuk geroago	Luzerako gogoramenak eta bizi-konpromisoa
Erantzun eta egoera inkontzienteak. _Fisiologikoak: bihotz-erritmoa, oilo-ipurdia _Aurre-kognitiboa: beroaldia _Erakargarritasuna: bertan behera utzi, ihesa, kontzentrazioa, joera nagusiari jarraitu... _Kemena eta egon ezina	Inpaktu horiek esperientziaren aurrean, esperientzian zehar eta esperientziaren ostean gerta daitezke, baina ostean neurtzen dira. _Emozio-afektua eta -esangura _Espiritu goratzea _Ikastea eta hausnarketa kritikoa _Jendartearekin batetegia _Estetika aberastea eta sormena piztea	Esperientziaren osteko inpaktuak dira eta denboran zehar kultura-esperientziak errepikatzean gertatzen dira berriro. _Jardueraren gogorarena _Talde bateko kide izateko sentimendua _Kultura-gaitasuna haztea _Enpatia-gaitasuna haztea _Munduko ikuskera zabala _Onurak osasunean _Ongizate subjektiboa

Berehalako efektu batzuk, erantzun fisikoak eta psikologiko inkontzienteak sortzen dira, eta objektua eta pertsona batera jartzearekin bat gertatzen dira. Erantzun horiek ezagutzeko, esperientziaren bizipenaren alderdi sentsorial eta somatikoen biometria-ikerketak aplikatzen dira. Esperientzia estetikoaren ondorioen neurketa objektiboak eman arren, epe motzean gaitza da kultura-esperientzien balioaren informazio esanguratsua ematea.

Dena den, kultura-ekitaldiaren osteko ikerketek (epe motzean) bai ematen dute informazio esanguratsua. Baina mugak ere badituzte; esate baterako, erantzun kontzienteak baino ez dituzte neurtzen, emaitzak alderatzea zaila da (ekitaldiak eta pertsonak aldatu egiten direlako) eta ez dute epe luzerako ondorioa islatzen. Ikerketa desberdinen artean aldeak izan arren eta adostasunera heltzetik urrun diren arren, neurtu beharreko dimentsioen inguruko adostasunak ikusten dira, inplikazio pertsonalaren eta emozio-, estetika-, kognizio- eta jendarte-alderdien adierazleei dagokienez.

Kultura jardueren osteko azterlan kualitatiboak beharrezkoak dira ikerketa kuantitatiboak euren testuinguruan aztertzeke, eta azterlanoi esker ondorioak induktiboki atera daitezke, eta, gainera, aukera ematen dute pertsonentzat esanguratsuak diren alderdiez sakontzeko. Muga nagusia hauxe da: pertsonen garrantzitsutzat jotzen dutena eta artikulatzeko gai direna bakarrik atzematen dute.

Inpaktu hedatuei dagokienez, atzera begirako eta luzetarako azterketei esker, kultura-esperientzien inpaktua epe luzera azter daiteke eta, gainera, pertsonen bizitzan nola aldatzen diren azter daiteke. Ikerketa horiei esker uler daitezke kultura-esperientziek autokontzientzian, norbere ongizatean edo autoadierazpenean duten inpaktuaren inguruak.

Atal metodologiko hau amaitzeko, gogora ekarri behar da Behatokiak luzetarako panela duela abian kultura-ohituen eta -praktiken inguruan, eta horri esker kultura-esperientziei buruzko informazioa ari da jasotzen, eta informazio zenbait jasotzen du hauexen inguruan: jarrerak, kulturarenganako balioak eta kultura-partaidetzaren pertsona- eta jendarte-inpaktua. Gai interesgarriak dira, kulturen izaten den parte-hartzea azaltzen dutelako. Izan ere, zenbat eta hobeto ulertu zein den kultura-esperientzien esangura, zelan bizi diren eta baloratzen diren, zelan aldatzen diren pertsona-inguruabarren arabera eta bizitzan, orduan eta baldintza hobek ditugu kultura-programak eta -proiektuak sortzeko, publikoekiko eta politika publiko berritzaileekiko harreman modu berriak azaltzeko.

**Kultura-esperientzien dimentsioak.** Kultura-esperientziek mota askotako inpaktuak sortzen dituzte. Nabardura gama oso zabala izan daitekeenez, berezko balioaren inguruko azterlanen izendatzaile komunetik sortutako eredia proposatzen da.

**Emozio-dimentsioa.** Berehalakoena. Kultura-esperientzia afektu-hunkipena da, zuzeneko zirrara. Astindu eta ukitu egiten du, ikuslearengana heltzen da. Gozamenarekin du zerikusia. Norbanako esperientziaren erdigunea da. Bi alderdirekin dago lotuta:

**Sentimenduak eta maitasunak.** Inpaktua aldarlean. Autore batzuek espiritu-elementuekin lotzen dute, goratze-sentsazioa sortzen duelako.

**Enpatia.** Pertsonaia batekiko konexioa, zuzenean diharduten aktoreek aipatu ohi duten publikoaren dardara.

**Dei-dimentsioa.** Kultura-esperientziek erakartzeko eta seduzitzeko duten gaitasunarekin lotuta. Botere liluragarria daukate. Esperientziak liluratuta eta harrapatuta sentitzen gara. Gure jabe egiten da. Denboraren zentzua galtzen duzu. Tentsioa, kontzentrazioa, energia sortzen du. Bi zentzutuan uler daiteke:

**Arreta erakartzea.** Lanak zelan erakartzen gaituen, liluratzeko gaitu, eragiten digun fluxu egoera; horren guztiaren inguruan jarrera bi daude, alegia: Csikszentmihalyi "flow" kontzeptuaren sortzaileak dio kultura-esperientzien inpaktua dela; beste batzuen ustetan, berriaz, inpaktuak sortzeko aurretiko baldintza da.

**Ekintzarako akuilua.** Eragiten duen jarrerekin lotuta. Adibidez, gozatu duzunaz pentsatzeko, komunikatu eta komentatzeko, lanari buruzko informazio gehigarria bilatzeko zirikatzen zaitu.

**Kognizio-dimentsioa.** Kultura-esperientziek dakarten hazkunde intelektuala da. Ezagutzaren pizgarria dira. Ikerketen arabera, mailakate bat dago, lan baten inguruan pentsatzeko gonbita den kognizio-estimulaziotik hausnarketa kritikoraino, zeina islatzen baita ideia berriei zabalik dagoen ikuspegian, norberaren iritziak zalantzan jartzean. Horrela, bi maila ikus daitezke:

**lhastea:** hazkundera dakar, jakintza sortzen du eta jakin-mina pizten du.  
**Hausnarketa kritikoa:** gure jarrerak edo ideiak birpentsatzea eragiten du. Munduari buruzko ikuspegia zabaltzen du.

**Estetika-dimentsioa.** Arte-hezkuntzari, gustua sortu eta sendotzeari, irizpide propioari buruzkoa da. Horrek dakar arte-formak ezagutzea, estimatzea, horiek erabiltzeko trebetasunak eta teknikak eskuratzea, lanak irakurtzen eta deskodetzen jakiteko interpretazio-gaitasuna garatzea eta estetika-epaiak emateko gai izatea. Dena den, estetika-esperientzia mendeetatik ikuspegi teoriko batetik aztertu bada ere, oso zaila da oraindik ere euren inpaktuaren ezagutza neurtzea. Bi balio mota bereiz daitezke:

**Sormenaren garapena.** Jakintzak eta trebetasunak eskuratzearekin lotuta. Autore batzuen ustetan, berrikuntzarekin, imajinarioarekin, arte-forma berrien esplorazioarekin dago lotuta.

**Gustua erakitzea.** Modu adierazgarrian esanda, ikusmena eta entzumena hezte. Lanaren edertasunarekin, kalitatearekin eta bikaintasunarekin dago lotuta.

**Jendarte-dimentsioa.** Kultura-esperientzien alderdi garrantzitsu bat haiek komunitatean bizitzea da, partekatutako emozioa izatea. Beste pertsona batzuekin partekatutako ingurunetan gauzatzen da. Sortzen dituzten sentsazioak beste batzuekin komentatzen dira, beste iritzi batzuk entzuten dira, eta hori berez jendarte-inpaktua da. Kontzeptuak, ideiak, esangurak eta ikurrak transmititzen dira. Efektu bikoitza sortzen du:

**Komunitate bateko hite izatea.** Norbanakoaren nortasunarekin edo erkidegoarekin jendarte-lotura izatea. Norberaren nortasunarekin eta harrotasunarekin batera azaltzen da. Besteengandik bereizteko modu bat da, bai modu positiboan, jendarte kohesioa sortuz, eta bai modu negatiboan, bazterkeriaren mesedetan jardunez.

**Jendarte-zubiak sortzea.** Beste pertsona eta komunitateak ezagututa, harreman berriak sortzen dira.



## 6. irudia. Dimentsioak, kultura-esperientzien balio eta inpaktu mota

Dimentsioa	Balio mota	Eragina						
		Sentsazioa	Pertzepzioa	Konexioa	Berrikuntza	Ikuspegia	Ongizatea	Transmisioa
Emozionala	Sentimenduak eta estimuak	—					—	
	Enpatia		—	—			—	
Deitzailea	Arreta erakarri		—	—				
	Ekintzara bultzatu					—		—
Kognitiboa	Ikaskuntza		—		—			
	Hausnarketa kritikoa					—		
Estetika	Sormena				—			
	Gustua	—	—					
Soziala	Zerbaiten parte izatea						—	—
	Zubiak			—		—		

## 3.2\_2. ardatza: Kulturaren kanpokotasunak

Gai hau ez dugu lar jorratuko, Behatokiak beste bi azterlanetan jorratu du eta lehen ere, bai alde teorikoa eta bai metodologikoa: “Inpaktu-azterlanen analisia” eta “Kulturako laguntza publikoen gizarte-itzuleraren ebaluazioa”. Kanpokotasunak onura-terminoetan neurtzen diren arren, beste irakurketa bat egin daiteke. “Kulturaren eta pobrezia-artearen harremanera hurbiltzea” izeneko txostenean, jendarte-desberdintasunaren eta kultura-partaidetzaren arteko lotura aztertu zen.

Hortaz, berezko helburuak lortzeko tresna gisa sortutako kulturaren ondoriozko dimentsioak laburbilduko ditugu, sortzen duten balio mota zehatz-mehatz deskribatu barik, Behatokiak gainerako azterlan batzuetan ikertutako gaiak ez errepikatzearen.

**Ekonomia-dimentsioa.** Eragin ekonomikoaren azterketak (EEA) eta kostu-onuren azterketak (KOA) bereizi behar dira; lehenengok, izan ere, kultura-adierazpen batek sortutako jarduera ekonomikoa zenbatesteko helburua dute abiapuntu, eta bigarrenen xedea ongizatean duten eragina zehaztea da, jarduera ekonomikoa sortzen ote den alde batera utzita. Jarduerak edo erakundeak sortzen dituen ekoizpena, errenta eta okupazioa zenbatestea dute ardatz lehenengok. Bigarrenen xedea, kostu-onuren azterketen (KOA) xedea, proiektuak jendarte-ongizate garbia hobetzen duenez zehaztea da, jendarte-kostuak eta -onurak ebaluatuz eta balorazio ekonomikoa edo diruzkoa eginez.

**Jendarte-dimentsioa.** Jendarteari zer itzultzen zaion ebaluatzea lan zaila da metodologiari dagokionez; eraginaren neurketa eta jarduera edo esperientzia kulturalaren elementu ukiezinak ez ohi dira lotzen. Kultura-adierazpenak herritarrei oro har dakartzkien onurak neurtu behar dira. Subirats eta beste batzuek (2008) kultura-politikek gizarte-eraginak eta -onurak sortzen dituzten hainbat ardatz identifikatzen dituzte:

- Nortasun eta moral kolektiboa
- Kapital soziala: gizarte-kohesioa
- Kapital soziala: herritarren parte-hartzea eta ekintza kolektiboa
- Gatazka ezagutzea eta kudeatzea
- “Klase ez-emankorren” balioa handitzea
- Pertsonen garapen autonomia eta sormena sustatzea
- Hiri-espazioa eraldatzea
- Zentraltasun berriak
- Paisaia berrinterpretatzea

## 3.3\_3. ardatza: Instituzio-balio publikoa

Kultura logika publikoa, pribatua eta komunitatearena elkarrekin dauden espazio bat da, logika horien arteko muga argirik gabeko agertokia, eta zatikatuta dago erakundeen ikuspuntutik; espazio horretan, egiteko modu berriak, lankidetzan jarduteko era berriak behar dira. Hirugarren ardatza kultura-erakundeen eta herritarren arteko harreman-esparruari buruzkoa da, eta erakundeok eta herritarrok eragile aktiboak dira balio partekatuak sortzeko garaian. Prozesuetan eragina du, baina kultura-zerbitzuen emaileen roletik harago doa. Izan ere, konfiantza sortzen dute eta zilegitasuna lortzeko gai dira.

Publikoak gardentasuna, irekitasuna eta kultura-antolakundeetan parte hartu nahi du, eta kulturaren profesionalek motibazioa eta euren lanak burubidea izan dezan nahi dute. Baina balio horrek profesionalek lan egiteko baldintzetan ere badu eragina, alegia, kalitatea eta duintasuna. Azkenik, politiken arduradunak dira balio-publikoaren kontzeptua euren jardueren printzipio gidari gisa euren gain hartu behar dutenak.

Baina labur-labur azter ditzagun balio publikoaren kontzeptua sortzen den testuingurua eta inplikazioak. 80ko hamarkadan, Kudeaketa Publiko Berria (KPB) kontzeptuak indar hartu zuen; kontzeptu horrek hauexek sustatzen ditu: kudeaketa tresna eragingarriagoak eta efizienteagoak ezartzea, kalitate handiagoko zerbitzuak garatzea eta erabiltzaileak aukeratzeko gaitasuna handitzea. Beste helburu bat gardentasuna bilatzea da, bai prozesuetan eta bai emaitzetan, kontrol- eta ebaluazio-sistemen inplementazioaren bidez. Kontzeptu horri dagokionez jarrera bi dira: baga, enpresa-irizpideak azpimarratzen dira – esaterako, eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia-emaitzak–; biga, irizpideok publikoaren berezitasunei, printzipioei eta balioei egokitzea bultzatzen da.

Balio publikoarekin lotura duen beste kontzeptu bat guztion onura da. Guztionak diren ondasunak eta baliabideak babestu eta kudeatzeko erari dagokio kontzeptu hori. Kulturaren kasuan, lotura zuzenekoa da: kultura ez da inorena eta guztiona

da eta, halakoxea denez, izaera unibertsala errespetatuz babestu behar da. Sustrai humanistako ereduaren printzipioak gardentasuna, ekitatea, zer komunitarioa eta konfiantza dira.

Baina azter ditzagun balio publikoaren kontzeptua eta inplikazioak. Aipatu bezala, kontzeptu hori laurogeita hamarreko hamarkadan sortu zen, Moore-ren eskutik, kudeatzaile publikoei orientazio praktikoa emateko. Kontzeptu horren arabera, baliabide publikoak balioa sortzeko erabili behar dira, hots, jendarte-onurak, ez ekonomikoak bakarrik, eta, halaxe, herritarrek onurok zerbitzu publikoen prestazioaren bidez jasotzen dituzte. Ñabardurak ñabardura, garrantzitsua da azpimarratzea publikoa dela balio hori ematen duena. Formulak bilatu behar dira, eskuragarri diren ondasunekin eta baliabideekin, politika publikoek emaitzarik onena lor dezaten jendartearentzat. Hortaz, helburua zerbitzu publikoa izan behar da, kalitate- eta bikaintasun-baldintzetan gauzatu behar da eta herritarrei eman behar zaizkie kontuak, euren konfiantzari eta legitimotasunari eutsi diezaioten.

### Instituzio-balio publikoaren dimentsioa

Instituzio-balio publikoak, kultura-erakundeei egokituta, honako dimentsio hauekin du lotura:

**Politika- eta estrategia-dimentsioa.** Komunitatean prestazioak sortu eta esleitzeko eta komunitateko eragileen artean helburuak, baliabideak eta ekintzak adosteko gaitasunari dagokio. Erakunde publikoek bakarrik ezin diete erantzun jendarteko transformazioei. Jendartearen beharrazanez erantzuten dieten politika publikoak behar dira, administrazioaren eta herritarren inplikazioan eta lankidetzan oinarrituak. Publikoa gobernantzan oinarritutako erantzukidetasun bilakatzea da. Bi balio mota bereiz daitezke:

**Zerbitzu publikoko politikak.** Pertsonen kultura-eskubideak ekitatean bermatzen dituzten politikak diseinatzea.

**Adosteko gaitasuna.** Erantzukidetasuna errazteko adostasun-eremuak garatu behar dira.

**Ekintza-dimentsioa:** Kalitateko zerbitzu publikoak ematea da kontua. Lege, finantza, materia eta giza gaitasuna duten erakunde eskudunak behar dira zerbitzu bikainak eman ahal izateko. Kontua da pertsonen ongizatea eta kalitatea zerbitzu publikoak hobetzeko prozesuen bidez handitzea herritarren ikuspegia zerbitzuen diseinuan bertan txertatuz. Besteak beste, gardentasunean eta kontuak ematean oinarritzen da, kudeaketa berritzeko, tresna eta prozesu berriak erantsiz. Bi alderdi ditu:

**Baliabideen kudeaketa eraginkorra.** Politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatu behar dira eta baliabideekin emaitzarik onena atera.

**Kudeaketa prozesuak berri eta hobetzea.** Erabakiak azkar hartzea, testuingurura egokitzea, tresna berriak eranstea, programen ebaluazioan oinarrituta beti.

**Etika-dimentsioa:** Tartean diren aktoreen sinesmenak, balioak edo konpromiso etikoak dira, komunitatearen lehentasun sozialekin lotutakoak. Zilegitasuna, sinesgarritasuna eta konfiantza lortzeko bidea da. Horiek barik ez dago balio publikorik, zerbitzu onak eman arren. Dimentsio horren elementu nagusia honako hau da:

**Koherentzia.** Esaten denaren eta egiten denaren artekoa, erakundearen xedearen eta programen garapenaren artekoa. Etikak denean du eragina. Komunitatean lortzen den ospearen eta konfiantzaren bidez nabaritzen da.

**Sormen-dimentsioa.** Kultura-antolakundeei aplikatutako balio publikoak honako hau izan behar du kontuan: pertsonak kultura-inpaktua eta kultura-balioa duten esperientzietan barneratzeko programa bikainak sortu eta gauzatzeko trebetasuna. Lotuta dago arriskuak onartzeko, komunitatearentzat garrantzitsuak diren programa berritzaileak gauzatzeko eta programon inguruan sareak josteko gaitasunarekin. Alderdi hauekin dago lotuta:

**Programen garrantzia.** Komunitatearen beharrianak, interesak eta jomugak aurkitzean oinarritzen da.

**Arriskuak diseinatu eta onartzeko argitasuna.** Nahi diren helburuak eta emaitzak definitzeko gaitasuna; arriskuak onartzea programak diseinatzean.

**Bikaintasuna.** Erakundeak programak imajinazioz garatzeko duen teknika- eta arte-gaitasuna da.

**Komunitatearen parte-hartzea.** Erakundeak komunitatearentzat esanguratsuak diren programak garatzean testuingurua sortzeko eta feedback-tresnak ezartzeko duen gaitasuna da.

# 4 Adierazle-proposamenerantz

Kulturaren balio publikoa ebaluatzeko, adierazle-eredu bat behar da, eta, eredu hori eraikitzeko, hiru ikuspegiak eta horietatik datozen dimentsioak islatu behar dira. Neurketa operatiboa izan dadin lortu behar da. Konplexutasuna handiago egiten da, baldin eta eredu bera aplikatu nahi bazaie programa eta proiektu bakoitzari eta kulturaren eragile eta sektore mota bakoitzari eta lurralde eskala bakoitzari. Arrisku handia dago orokorregia eta testuingurutik kanpokoak izateko.

Metodologiaren ikuskeratik, bi gai erantsi behar dira: tresna diakronikoak erabili behar dira, denbora irismen plurala (berehalakoa, esperientziaren ostekoa eta epe luzerakoa) duten dimentsioak ebaluatzen direlako; eta inpaktu mota desberdinak (pertsonala eta komunitatearena) kontuan izaten dituzten metodoak erabili behar dira; beraz, inplikaturako eragileen partaidetza beharrezkoa da.

Horri beharrezkoak diren adierazleen ezaugarriak gehitu behar zaizkio, baita neurketak duen zailtasuna ere. Eskura diren datuak mugatuak dira. Honako hauek baino ez dira neurtzen: bertaratzeak eta partaidetza, ekonomia-inpaktua eta, neurri apalagoan, jendarte-inpaktua. Programen ebaluazioaren emaitzak antolakundeen barneko ezagutzaren zatia dira, eta horrez kanpokoak helburuak eta aurrekontua betetzera bideratzen dira.


Hala ere, horrek ez du esan nahi ez dela ebaluatzen. Izatez, idatzi gabeko protokoloak daude; esaterako, txaloen iraupena, bisak edo antzokian agurtzera ateratzen den aldiak. Publikoak proposamenari, sartzeko zailtasunei edo programa baten abantailei buruzko iruzkinak egiten ditu; kritika espezializatuak arte-kalitatea eta publikoak (kontzertuetan, adibidez) duen portaera baloratzen ditu; profesionalek eta programatzaileek iritziak partekatzen dituzte, eta arte-kalitatea, dauzkaten baldintzak eta baliabideak epaitu; herritarrek eta taldeek baloratu eta iritziak trukutzen dituzte, horretarako bereziki ezarritako kanalen bidez ez bada ere; komunikabideek proposamenen berri ematen dute eta jakinarazten duten informazioak inpaktu handia dauka. Eta arduradun politikoei euren politikak baloratzeko informazioa heltzen zaie. Baina ebaluazio horiek ez dira sistematikoak, osoak eta zorrotzak eta, gainera, ez dute kontuan hartzen ikuspegi aniztasuna.

Balioaren hiru ardatzetatik, tresna-perspektiba da garatuena ebaluazio adierazleei dagokienez, inpaktuak kuantifikatzeko eta neurtzeko xedea duelako. Eta ikuspegi horren barruan azpimarratu behar dira ekonomia-inpaktuak ebaluatzeko adierazleak, sendotutako metodologiekin eta aplikazio-adibide askorekin. Jendarte-inpaktuak hasiberriak dira oraindik, baina egon badaude metodoak eurak garatzeko eta teoria-eredu zabalagoak. Goragoko atalean azaldu bezala, Behatokiak azterlan bereziak egin ditu ardatz hori aztertzeko.

Ebaluazioaren ikuspegitik gutxien jorratu den ardatza kultura esperientzien berezko balioari lotutakoa da. Dagoeneko aipatu dira esperientzia subjektiboak neurtzeko dakartzan metodologia-zailtasunak. Azken urteotan, instituzio-balio publikoak politika publikoen artean duen garrantziaz konturatzen hasiak gara, baina kultura politikak ebaluatzen ereduaren sistematikoki integratzeko saiakerak berriak dira.

Kultura-politiken balio publikoa neurtzeko eta ebaluatzen ereduaren inplementatzeko apusturik argiena Australiako mendebaldeko Gobernuaren Kultura eta Arte Saila (DCA) da. 2010ean, *Creating Value* ekimena bultzatu zuten, kultura eta arte sektorearen politiketarako erreferentzia-esparrua. 2011n, sektoreari kontsultatu eta gero, *Public Value Measurement Framework* (PVMF) proiektua garatu zuten, arte eta kulturaren egindako inbertsioen bidez sortzen den balio publikoa hobeto ulertzeko eta neurtzeko, eta sektorea garatzeko agentzia moduan egiten duen lana ulertzeko. Proiektua azpimarragarria da, planteamendu holistikoa duelako eta ebaluazioetan beste ikuskera batzuk (autoebaluazioa, zatikako ebaluazioa eta ebaluazio publikoa) gehitzen dituelako. Ereduaren logika honako eskema honetan azaltzen da.

**7. irudia.** Western Australiako Gobernuaren DCAREN balio publikoaren ereduaren eskema.



Iturria: Public Value Measurement Framework. Measuring the Quality of the Arts, 2014.

Australiako ereduak balio izan du *Quality Metrics National Test* (QMNT) abian jartzeko, *Arts Council England*-ek bultzatutako arte-kalitatea ebaluatzen nazio-sistema. Ekimenarekin, besteak beste, kultura-antolakundeek zuzentzen dutelako asmatu zuten, eta alde aurretiko proiektu pilotu batean oinarritzen delako, Manchesterko kultura-antolakundearen partzuzergero batek 2012an gauzatu zuen. Hiru teknika konbinatu neurtzen den hamabi adierazleko multzoa da, Australiako ereduaren bezala: autoebaluazioa (artistak, komisariotza, arte-proposamenaren ekoizleak), berdinen arteko ebaluazioa (arte-adituek edo antzeko antolakundeek eginiko ko-ebaluazioa) eta ebaluazio publikoa (bertaratutakoak, bisitariak).

Aplikazio digital bat dute antolakundeek iritziak (ados diren edo ez diren) jaso ditzaten arte-kalitatearen inguruan (kontzeptua, aurkezpena, berezitasuna, liluratzeko gaitasuna, aldaketa, gogo-berotasuna, tokiko inpaktua, garrantzia, zorrotasuna, originaltasuna eta bikaintasuna). Hainbat sektore, antolakuntza-ezaugarri eta tokitako kultura-antolakunde multzo zabal batean testatu dute ereduaren, eta gutxienezko betekizunak jarri dizkiete proiektuan parte hartzeko. Besteak beste, eredu hiru ekitaldi, erakusketa edo ikuskizunetan aplikatzeko konpromisoa; bakoitzarentzat antolaketaren autoebaluazioa egiteko konpromisoa, bost balorazio pareka eta parte hartu duen publikoaren artean 30 erantzun; emaitzak partekatzeko konpromisoa, eta abar.

## 4.1 Kultur esperientziak ebaluatzea

Arteek eta kulturak duten erakargarritasuna pertsonak hunkitzeko, begirada zabal erazteko eta pertsonak aldatzeko duten gaitasuna da. Baina, hau da paradoxa, zaila da pertsonarengan eta komunitateetan duten eragina kuantifikatzen.

Kultura-esperientziak ebaluatzean, beharrezkoa da kontuan hartzea berehalako inpaktuak sortzen dituztela, baita epe ertainean eta luzean metatzen diren beste batzuk ere. Horretara, honako bi hauek konbinatzea ebaluatzeko bide interesgarria izan daiteke: batetik, esperientziaren osteko inpaktua erraz neurtzeko tresna errazak –zuzeneko jarduerak edo erakusketetarako bisitaldiak direnean bereziki– eta, bestetik, bizipen horiek pertsonarengan eta komunitatean uzten doazen aztarnaren eragina neurtzeko bestelako teknika kuantitatibo edo kualitatiboak.

Esperientziaren ostean berehala ebaluatzekoen artean, lehenetsia dute inpaktu emozionalek eta deitzaileek eta proposamenaren kalitateari lotutakoek, proiektu ingelesarekin bat eginda.

Epe luzerako inpaktuen artean, irizpidea eta gustua ikasi, asimilatu eta eraikitzeko prozesuak behar dituzten kognizio-, estetika- eta jendarte-alderdiak azpimarratu behar dira.

Ebaluazioan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat honako hau da: iritzi eta aspektu subjektiboak direnez, beharrezkoa da intersubjektibotasunari antzematen dioten metodoak gehitzea, adituen iritziak eta antolakundearen beraren eta publikoaren inpresioak harrapatzen dituztenak. Informazio-iturri bi horiek kontrastatuz ebaluazio esanguratsuak lor daitezke. Hori da Australiako eta Ingalaterrako esperientzietan azpimarratu beharreko alderdietako bat.

Metodologiaren ikuspuntutik adierazle kualitatiboak dira egokienak –hala nola pertzepzioak, iritziak edo gogobetetzea– berezko balioa ebaluatzeko, zuzenagoak direlako. Horiek neurtzeko, graduazio-eskalak erabiltzen dira: baieztapen zehatz batzuekiko adostasunari buruzkoak, 0tik 10erako gogobetetze-mailari buruzkoak, eta abar.

Esperientziaren ostean jaso beharreko adierazleen artean, honako adibide hauek proposa daitezke:

- Jarduerak eragindako emozioaren intentsitatea baloratzea
- Publikoarekiko konexio maila baloratzea
- Proposamenak arreta erakartzeko duen gaitasuna
- Informazio gehigarria bilatzera bultzatzeko gaitasuna
- Elkarrizketa sortzeko gaitasuna (proposamenari buruzko iruzkinak)
- Lana gomendatzeko asmoa
- Proposamenaren originaltasun-maila
- Proposamenaren gogobetetze-maila
- Esperientzia errepikatzeko prest izango litzatekeen pertsonen ehunekoa
- Lurralde/toki horretan egitea garrantzitsua dela uste duten pertsonen ehunekoa.

Epe luzerako ebaluazioa pertsonen inpaktuaren inguruan duten ikuskeratik edo pertsonok kide diren komunitateak duenetik ikus daiteke. Izatez, dimentsio bikoitz hori honako adierazle hauei erantsi beharko litzaieke:

- Jakintzari eta jakinduria zabaltzeari egindako ekarpena.
- Testuingurua ulertu, azaldu eta aldatzeko ekarpena.
- Sormen-gaitasuna garatzeari egindako ekarpena.
- Estatika-heziketari egindako ekarpena.
- Talde bateko kide izatearen sentimendua sortzeko gaitasuna
- Era bateko eta besteko publikoek parte-hartzea eta elkarren arteko harremana
- Ongizate pertsonalean inpaktua

## 4.2 Kanpokotasunak ebaluatzea

Azterlanean zehar aipatu den moduan, kanpokotasunak ebaluatzea lehenesten da kulturaren balioa neurtzean; ekonomia-inpaktuen neurketa lehenesten da jendarte- eta ingurumen-inpaktuen gaitetik. Dena den, gero eta interes handiagoa sumatzen da kulturaren tresna-onurak ebaluatzeko garaian jendarte- eta ingurumen-ikuspegi hori jasotzeko. Horren harira, ikus Behatokiak egindako *Eragin-azterketen ikerketa*.

Kulturako jardueren eta zerbitzuen ondorioen ikuspegitik era hauetako ondorioak identifika daitezke:

**Ekonomikoa:** epe laburrean tokiko eta lurraldeko ekonomia-garapenean izan ditzakete ondorioak (zuzenekoak, zeharkakoak eta induzituak), baita epe luzean ere (lurraldearen ekoizpen-egituraren aldaketak). Horrela, beraz, honako hauek neurtzera bideratzen dira adierazleak:

- Barne-produktu gordinaren gaineko eragina
- Inpaktua zergak sortzeko.
- Okupazioen gaineko inpaktua.

**Turistikoa:** helmuga batek duen irudian eta erakartzeko gaitasunean eduki dezakete eragina, berriz ere bisita egitera bultzatuz edo bisitarien gogobetetzea hobetuz. Turismoaren ondorioek ekonomia-inpaktuak dakartzate.

**Jendarte-ondorioa:** gizarte-garapenean lagundu dezake, ikuspuntu orokor batetik zein ikuspuntu pertsonal batetik. Jendarte-onurak, herritarren ongizatea, jendarte-kohesioa eta beste dakartzate. Adierazleen artean, honako hau neurtzera bideratutakoak identifika daitezke:

- Baztertzeko arriskuan diren taldeak jendarteratzea.
- Muga fisikoak, psikikoak eta sentsorialak dituzten pertsonentzako irisgarritasuna
- Talde bateko kide izateko sentimendua sortzea
- Jendarte-aniztasuna

**Fisikoa eta ingurumenekoa:** kultura jarduerak eta proiektuek hiri- eta lurralde-transformazioa alde dezakete, pertsonen eta ingurune fisikoaren arteko konexioa hobetuz. Alderdi hori neurtzeko adierazleen artean, hauek bereziki aipa daitezke:

- Inpaktua hiri-berrikuntzan
- Zentralitate berriak garatzea
- Jakintza handitzea eta kultura-ingurunea babestu eta balioestea.
- Ingurumen-balioen inguruko kontzientziazioa
- Inpaktua hondakinak murriztea

## 4.3 Erakunde-balio publikoa ebaluatzeko adierazleak

Azken atal honetan erakunde ikuspegia azpimarratzen da. Hauekin du zerikusia: zerbitzu publikoaren ideia, kultura-eskubideak, kultura-proiektuen garapenarekiko gobernantza eta erantzunkidetasuna. Kalitateko zerbitzuak ematearekin dago lotuta, kudeaketa operatiboaren ikuspuntutik eta kultura bikaintasunaren ikuspegitik.

Ebaluatu behar da ea programak ondo sortu eta gauzatu diren balio publikoaren ikuspegitik. Garrantzitsua da kontuan hartzea herritarrek aintzatesten dutela balio publikoa; beraz, dimentsio horren ebaluazioak antolakuntzaren ebaluazioa eta, batez ere, komunitatearen ebaluazioa batu behar ditu.

Kultura jardueren eta proiektuen instituzio-balio publikoaren ebaluazioak alderdi hauexek eduki behar ditu kontuan:

**Politiko-estrategikoa.** Ebaluatu behar da ea kultura programek bokazio publikoa duten eta komunitatearen beharrianak betetzeko balio duten. Horretarako, adierazleek hauxe neurtu behar dute:

- Erakundearen programaren eta strategiaren arteko koherentzia.
- Norbanakoen eta taldearen interesen arteko oreka.
- Talde-interesei antzeman eta haiek diseinuan sartzeko gaitasuna.
- Eragileen eta taldeen artean adosteko gaitasuna.

**Operatiboa.** Antolakuntzak zerbitzu bikainak gauzatzeko duen gaitasuna ebaluatu behar da. Hortaz, adierazleek honako hau neurtu behar dute:

- Aurrekontua zenbateraino betetzen den.
- Kudeaketa-prozesuak berritzeko eta hobetzeko gaitasuna.
- Langileen lan-baldintzak.
- Hornitzaileak kontratatzeke irizpideak.

**Kulturala.** Kultura-garrantzia duten programak sortu eta gauzatzeko gaitasunari buruzkoa da. Adierazleek honako hauek neurtu behar dituzte:

- Erkidegoan izandako eragina.
- Pertsonak partaide egiteko gaitasuna.
- Diseinuaren gardentasuna.
- Gaitasun teknikoa eta artistikoa



# 5 Azken sintesia

Kulturaren balio publikoaren gaineko begiradak eredu inklusiboa dakar, zeinean balioaren hiru ardatzak elkarri lotzen zaizkion. Kulturaren kontzeptu indartsu batean oinarritutako ikuspegi holistikoa behar da, zeinak zer kultural horretan elkarrekin diren dimentsio guztiak kontuan hartzen dituen.

Ardatz nagusia, gainerakoen sortzailea eta gutxien ikertu dena delako, kultura-esperientzien berezko balioa da. Baliteke bizipen subjektiboa izateagatik eta osagai psikologikoak dituelako kultura-politiken interes-gunetik urrun egotea. Hala ere, pertsonen kultura-esperientziek nolako eragina duten hobeto jakiteak lagun lezake programa hobeak diseinatzen.

Praktikan apustu integral gutxi aurki dezakegu. Kulturaren tresna-alderdiek beste politika batzuetan eragina izateko gaitasuna azpimarratzen da. Beharrezkoa da begirada hori orekatzea, berezko balioaren eta tresna-balioaren garrantzia kontuan izanda.

Ebaluazio-ereduek ikuspegi desberdinak konbinatu behar dituzte: pertsonengan eta komunitatean izaniko inpaktuaren perspektiba eta epe motzerako efektua eta epe luzeakoa. Perspektiba desberdinak batzen dituzten esperientziei esker gaindi daiteke kultura-esperientzien balioaren berezko subjektibotasuna. Honela batzen dute antolakundearen ikuspegia: proposamena sortu duten eta proposamena edo programa garatu duten eragileen autoebaluazioaren bidez; berdinaren arteko ebaluazioaren edo arte-adituen edo antzeko antolakundearen binakako edo koebaluazioaren bidez; eta ebaluazio publikoaren bitartez.

# **Bibliografia-erreferentziak**

BARBIERI, N. (2014). "Cultura, políticas públicas y bienes comunes: hacia unas políticas de lo cultural", *Kult-uraldizkaria*, 1. bol., 101-119 orr.

BELFIORE, E. Culture Value Project Blog. Hemen eskuratu daiteke:

<https://culturalvalueproject.wordpress.com/2014/07/18/dr-eleonora-belfiore-the-politics-of-cultural-value-towards-an-emancipatory-framework/>

CROSSICK, G. ETA KASZYNSKA, P. (2016). "Understanding the value of arts and culture". *Arts and Humanities Research Council*. Hemen eskuratu daiteke:

<http://www.ahrc.ac.uk/research/fundedthemesandprogrammes/culturalvalueproject/>

DEPARTMENT OF CULTURE AND THE ARTS WESTERN AUSTRALIA (2014) "Measuring the Quality of the Arts". Hemen eskuratu daiteke:

[http://www.dca.wa.gov.au/Documents/New%20Research%20Hub/Research%20Documents/Public%20Value/PVMF\\_Measuring\\_Quality\\_Arts\\_Research\\_Hub\\_08\\_14.pdf](http://www.dca.wa.gov.au/Documents/New%20Research%20Hub/Research%20Documents/Public%20Value/PVMF_Measuring_Quality_Arts_Research_Hub_08_14.pdf)

GARCÉS, M (2016). Aula oberta del Institut d'Humanitats delakoan emandako hitzaldiaren kronika. Hemen eskuratu daiteke:

<http://aulaobertaihb.cccb.org/es/humanitats-en-transicio-conferencia-de-marina-garces-aula-oberta-ihb/>

GUBBINS, M (2016). "Building Bridges. Diversity in European Film". Cine-Regio. Hemen eskuratu daiteke:

[https://issuu.com/filmvast/docs/buildingbridges\\_michael\\_gubbins](https://issuu.com/filmvast/docs/buildingbridges_michael_gubbins)

HOLDEN, J. (2004). "Capturing Cultural Value: How Culture Has Become a Tool of Government Policy". Demos. Hemen eskuratu daiteke:

<https://www.demos.co.uk/files/CapturingCulturalValue.pdf>

HOLDEN, J. (2006). "Cultural Value and the Crisis of Legitimacy Why culture needs a democratic mandate". Demos. Hemen eskuratu daiteke:

<https://www.demos.co.uk/files/Culturalvaluweb.pdf>

KNELL, J Y WHITAKER, A (2016). "Quality Metrics Final Report" Culture Counts Quality Metrics National Test. *Arts Council England*. Hemen eskuratu daiteke:

[http://www.artscouncil.org.uk/sites/default/files/download-file/QualityMetricsNationalTest\\_Report\\_Knell\\_Whitaker\\_2016\\_0.pdf](http://www.artscouncil.org.uk/sites/default/files/download-file/QualityMetricsNationalTest_Report_Knell_Whitaker_2016_0.pdf)

MOORE, M. (1997). "Creating Public Value: Strategic Management in Government". Harvard University Press.

Kulturaren Euskal Behatokia (2012). "Kulturako laguntza publikoen gizarte- itzuleraren ebaluazioa". Hemen eskuratu daiteke:  
[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb\\_publicaciones\\_gizarte\\_itzu/eu\\_def/index.shtml](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_publicaciones_gizarte_itzu/eu_def/index.shtml)

Kulturaren Euskal Behatokia (2015). "Kulturaren eta pobrezia-aren arteko erlazioaren inguruan". Hemen eskuratu daiteke:  
<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informazioa/kulturaren-eta-pobrezia-aren-arte-ko-erlazio-aren-inguruan-2016/r46-19123/eu/>

Kulturaren Euskal Behatokia (2017). "Eragin-azterketen ikerketa". Hemen eskuratu daiteke:  
[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_eragin\\_azterke\\_2017/eu\\_def/index.shtml](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_eragin_azterke_2017/eu_def/index.shtml)

SUBIRATS, J ETA FINA, X. (2008). "El retorn social de les polítiques culturals". *Cultura*. Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura i Mitjans de Comunicació. Hemen eskuratu daiteke:  
[http://dadesculturals.gencat.cat/web/content/sscc/gt/arxiu\\_gt/estudi\\_11\\_c.pdf](http://dadesculturals.gencat.cat/web/content/sscc/gt/arxiu_gt/estudi_11_c.pdf)

ZAFRA, R. (2017). "El Entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital". Anagrama.



# Kulturaren balio publikoa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA